

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Otordu lasaia

KURKUMAK, *Curcuma longa*, inurriak uxatzen badi-tu, muki-belarra, *Pinguicula vulgaris*, haiek erakar-tzen saiatzen da.

Muki-belarra izena hostoen azalean duen muki berezi batetik dator. Landare txiki honek inon-go zurtoinik gabe hostoak lurraren gainean zabal-tzen ditu, borobilean, zainaren jira osoa beraren-tzat hartuz. Toki hezeetan baino ez da bizi. Eguzkiak arin jo edo batere azaltzen ez denetan. Erreka bazter eta, batez ere, ura sortzen den lekue-tan topatuko duzu. Oraintxe zabalduak ditu hosto-en platerean, erdi-erdi, sustraitik zuzenean sor-tutako garatxoaren buruan lore ubel dotoreak. Ezproi eta guzti, nabarmen asko, hosto horizta, mukiz distiratsuen gainean.

Inurriak erakartzen ahalegin berezia egiten duela nioen. Inurriak eta inguruan dabilen edozein intsektu txiki. Hostoen gainetik igaro edo hegaka bertara jaisten denak elorrio du. Hosto azaleko milaka iletxoaren muturrean duen mukiak gogor eutsiko dio eta ezin izango du inola ere alde egin.

Bertan hilko da eta hostoak intsektutxo gajoa liseritzeko urak jariatu eta jango du. Hosto gainean anima-liatxoaren azal gogorak besterik ez dituzu iku-siko, bapo jan duena-ren hondar. Intsektua itsatsi eta erabat jan artean usteldu ez dadin, gai bakterizida bat du, otordu lasaia asko balio duela!

Gai bakterizida hori aspalditik ezaguna da. Aziendaren zauriak pasmoak harrapatu gabe, ahal den azkarren itxeko muki-belarraren hostoak jar-tzen zaizkie.

Norwegian eta Suedian hosto hauek esnea gatzatu edo mamitu eta *filmjöl* deituriko jogurt antzeko bat egiteko erabiltzen dituzte.



Muki-belarra.



JAKOBA ERREKONDO

Makal pastela

Zer da demonio pastela makala! Makala, *Populus nigra*, zuhaitz ezaguna da. Ur-ondoetan egiten da galanta, makala. Zura, horixe, ondo berea du makalak, makala. Pinuaren beltza erriotaraino pirrilaka jaisten zeneko garaia ahazteko pronto jarri garenean, zanpiura erraldoiek padurari irabazitako erribera onenetan kolore pastela, makala. Bakoitzak distira badu ere, makalak, urrutitik pastel kolorea du, Alejandro Tapia maisuaren oihal, makaldiak. Soro emankorrenak makaldi. Zer gara, bada, demonio pastelak makalok!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.